



---

**UDAL BATZAR ARRUNTA**  
**2016ko urtarrilaren 28a**

LEKUA: Udaletxeko Batzar Aretoa.

LEHENDAKARIA: Ioritz Imaz Baztarrika jn.

ZINEGOTZIAK:

Montserrat Delgado Aguirre and.

Aloña Barandiaran Munduate and.

Erkuden Murua Uribe-Etxebarria and.

Rufino Insausti Eciolaza jn.

Aritz Ugarte Munduate jn.

Igor Ariztimuño Iparraguirre jn.

Argoitz Urrestaratzu Lazkano jn.

Aitzol Mendizabal Malkorra jn.

Andoni Gomez Aldanondo jn.

Aratz Urkia Telleria jn

Etorri ez direnak: Iñor ez.

IDAZKARIA: Aitor Iñarra González Jn.

BATZARRA: Arrunta. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: Arratsaldeko 18:30etan. Amaiera: 20:00

Gai zerrenda eztabaidatzen hasi aurretik Alkate jaunak proposatu du gai berri bat sartzea, honakoa hain justu: *POCTEFA dirulaguntza proiektua hiru urtetarako programa udalak bere gain hartzeko konpromisoa*. Bertaratutako guztiak urgentziaren alde agertu dira eta aho batez erabaki dute gaia gai zerrenda sartzea.

Honela Gai Zerrenda jarraian azaltzen den bezala gelditzen da idatzita:



## **GAI-ZERRENDA**

- 1.- Azken Batzarreko agiriaren onespena: 2015-12-17koa.
- 2.- Alkatetzako Dekretu eta Erabakien berri ematea:  
2015: 324 - 340  
2016: 1 - 22
- 3.- POCTEFA dirulaguntza proiektua hiru urtetarako programa udalak bere gain hartzeko konpromisoa.
- 4.- Kultura zerbitzuen kudeaketa kontratua esleitzea.
- 5.- Kale garbiketa eta lorezaintza zerbitzuaren kudeaketa kontratua esleitzea.
- 6.- Idiazabalgo Mendietako ordenantzan aldaketa.
- 7.- Gazta interpretazio zentroko kudeaketa kontratua luzatzea lizitazio berria atera arte.
- 8.- San Blas-etako aurrekontua onartzea.
- 9.- Galdera eta eskaerak.

-----

## **GAIK**

### **1.- Azken Batzarreko agiriaren onespena: 2015-12-17koa.**

Gaia eztabaidatu ondoren 2015eko azaroaren 26ko akta aho batez onartuta gelditzen da.

### **2.- Alkatetzako Dekretu eta Erabakien berri ematea: 2015: 324 - 340 eta 2016: 1 - 22**

Azken udalbatzatik hona emandako Alkatetza Ebazpenen zerrenda zinegotzi guztiei banatuak daudelarik. Aloña Barandiaran andereak ohar arazten du bi dekretutan ez dagoela argi zen den edukina: 2015-329 eta 2016-4. Horiei buruzko informazioa banatuko dela esaten du Idazkariak. Bestalde, Udalbatza Osoko zinegotziak ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen dira.

### **3.- POCTEFA dirulaguntza proiektua hiru urtetarako programa udalak bere gain hartzeko konpromisoa.**

Alkate jaunak berriz ere azalpenak ematen ditu programa honi buruz, esanez europako dirulaguntza programa bat dela eta diru iturri hori lortu ahal izateko udalak hiru urtetan hainbat inbertsio egin behar dituela, horien artean gazta feriak eta besteak. Gaztaren inguruko partida, INNOLACT proiektuarekin lotuko da.

Gaia eztabaidatu ondoren udalbatzak aho batez



---

ERABAKITZEN DU

POCTEFA programaren baitan dauden jarduerak martxan jartzeko konpromezua hartzea datorren hiru urtetan, hau da 2016-2018.

**4.- Kultura zerbitzuen kudeaketa kontratua esleitzea.**

Idazkariak azaldu du 2015eko abenduak 7an iragarkia publikatu zela GAOan kultura zerbitzuen kudeaketa kontratua lehiaketa bidez esleitzeko. Lizitazio horretara bi enpresa aurkeztu zirela Erro eta Kultur Atelier. Kontratazio mahia urtarrilaren 19an eta 26an elkartu zen lizitazio plikak edo sobreak ireki eta balorazioa egiteko. Balorazio horren arabera Kultur Atelier enpresak irabazi du lehiaketa.

Hala ere urtarrilak 28an Erro enpresak alegazioa aurkeztu du kontratazio mahaiak egindako baloraketaren aurka. Bertan esaten da udalak kontutan hartu behar zituela beraien hainbat meritu eta ez ditu kontutan izan. Bestalde ere nabaritu du udalak bakarrik lau irizpide baloratu dituela eta plegutan bosgarren bat ere bazegola. Horregatik udalari eskatzen dio baloraketa hori errebisatzeko.

Gaia eztabaidatu ondoren aho batez erabakitzen da esleipena bertan behera uztea alegazio horiek errebisatu arte.

**5.- Kale garbiketa eta lorezaintza zerbitzuaren kudeaketa kontratua esleitzea.**

Idazkari jaunak azalpenak eman ditu kontratazio prozesuari buruz: lehiaketaren iragarkia 2015eko abenduaren 7an publikatu zen GAOan. Aurkezteko epea bukatu ondoren bost enpresa aurkeztu ziren: Erika, Altzibar, Sifu, Xirimiri, eta Asaser UTE.

Kontratazio mahaia hiru aldiz bildu da kontratazioaren fase ezterdinetan: urtarrilaren 13, 19 eta 26an. Sobreen irekiera publikoa izan zen, bai A eta B egun batean, zein C sobreena beste egun batean. Bertara enpresa lehiakideen ordezkariak aurkeztu ziren.



Balorazio teknikoa egin zen lehenengo, eta horren emaitzak publikoki eman ondoren balorazio ekonomikoa egin zen.

Hori guztiaren emaitzak honakoak izan ziren:

Erika enpresa kanpoan gelditu zen solbentzia faltagatik. Ez zuten aurkeztu iñongo dokumenturik solbentzia finantzarioa demostratzen zuenik.

Beste lau enpresen baloraketa honakoa izan zen:

	Altzibar	Sifu	Xirimiri	Asaser UTE
Organizazio plana	8,5	20	12,5	17
Giza Baliabideak	7,5	15	7,5	7,5
Baliabide materialak	12,5	15	12,5	15
TOTALA	28,5	50	32,5	39,5
Proposamen ekonomikoa	40,65	40,89	50	23,4
GUZTIRA	69,15	90,89	82,50	62,90

Lehiaketa irabazi zuen enpresa Grupo Sifu zen. Enpresa honek proposatzen zuen lan organizazioan lau langile lanaldi osoan zeuden, hori dela eta udalak zalantzak zituen ea zer lan baldintzak eskainiko zien langileei horrenbeste langile kontratatu ahal izateko (beste enpresa guztiak bakarrik bi langile proposatzen baitzituzten). Horregatik, eskatu zitzaion Idazkariari ikertu zezan zer lan baldintzak aplikatuko zitzaizkien.

Idazkariak azaldu du enpresa honek behar bereziak dituzten langileak kontratatzen dituela, hau da Down sindromea eta halakoak dituzten pertsonak. Horregatik segurtasun sozialean 100% hobaria edo bonifikazioa daukate. Bestalde aplikatzen zaien konbenioa estatu mailakoa da, baina soldata konplementu batzuk eransten dizkiete langileei.

Eztabaidaren barne zinegotziek zalantzak agertu dituzte konbenio horren arabera soldatak baxuak direlako, konplementuak kontutan izanda ere. Hala ere erabaki dute aho batez baldintza bat jartzea enpresa honi, hain zuzen Gipuzkoan edo Euskal Autonomia Erkidegoan langile mota hauei aplikagarri izango zaien konbenioa etorkizunean onartuko balitz hura aplikatu beharko litzateke.



Alabaina, eztabaidan parte izan badira ere eta proposamenak egin badituzte ere, EH Bildu taldeko zinegotziek (Ugarte, Barandiaran, Urrestarazu eta Urkia jaun andereak) adierazi dute printzipioz beraiek ez daudela ados enpresa bat kontratatzearekin halako beharra betetzeko, aldiz udalak zuzenean pertsonal gehiago kontratatu beharko luke halako lanak egiteko.

Beste zinegotzi guztiak esleipena egitearen alde agertu dira.

Hori dela eta udalbatzak, gehiengoz honakoa

#### ERABAKITZEN DU

Lehena. Grupo Sifu enpresaren aldeko esleipena egitea udal kaleen garbiketa eta udal lorategien mantenua egiteko kontratuan.

Prezioa: 91.921,73 euro urteko.

Iraupena: bi urte, luzagarria beste bi urtez.

Bigarrena. Honako esleipenerako baldintzak ezartzea: 1. Gipuzkoa edo Euskal Autonomia Erkidegoan langile mota hauei aplikagarri zaizkien konbenioa onartuko balitz, hura aplikatu beharko litzaike langileei (edo ekonomikoki hoberen dena). 2. Alkate jaunari baimena ematea Sifu enpresarekin langileen soldata eta bestelako baldintzak hobera negoziatzeko.

Aipatu baldintzak kontratuan jaso beharko dira, eta kontratua bertan behera uzteko baldintzak izango dira betetzen ez badira.

Hirugarren. Berma definitiboa ezarri ondoren, eta dagozkion beste izapideak martxan jarri eta gero, kontratua sinatzea Grupo Sifu enpresarekin.

#### **6.- Idiazabalgo Mendietako ordenantzan aldaketa.**

Alkate jaunak azaltzen du 2015eko abenduaren 7an Idiazabalgo Abeltzainen Elkarteak Ospatutako Urteko Batzarrean proposatu zutela Idiazabal-Mendian (Onura publikoko 2.043.1 zb. mendian) ahuntzak eta txerriak larratzeko eskubidea



erregulatzea. Gaia eztabaidatu ondoren zinegotzi guztiak ados azaltzen dira proposatutako neurriarekin.

Hala ere aldaketarik egin behar ez dela ohartarazten dute, izan ere 2014. urtean mendien ordenantza jada aldatu zelako, eta neurri horiek hartuak zeudelako.

**7.- Gazta interpretazio zentroko kudeaketa kontratua luzatzea lizitazio berria atera arte.**

Alkate jaunak adierazten du Gazta Interpretazio Zentroko kudeaketa eramaten den kooperatibaren kontratua, Erro Koop, Martxoan iraungiko dela.

Oraindik lizitazio berria egiteko pleguak ez daude guztiz bukatuta, eta aurrekoei aldaketa batzuk sartu behar dira. Hori dela eta proposatzen du kontratua luzatzea hurrengo lizitazio hasi arte. Honakoa datorren bi edo hiru hilabetetan egingo dela aurreikusten da.

Hori dela eta udalbatzak, aho batez honakoa

ERABAKITZEN DU

Bakarra,

Erro Koop-kin udalak daukan kontratua gazta interpretazio zentroa kudeatzeko, luzatzea hurrengo lizitazioa atera arte.

**8.- San Blas-etako aurrekontua onartzea.**

Alkate jaunak San Blas jaietako aurrekontua aurkeztu du, eta onartzeko proposatu ere. Jaien aurrekontua osotasunean 73.889,44 eurotakoa da. Partida batzuk aztertu dituzte zinegotziek, eta denak ados azaltzen dira aurkeztutako aurrekontuarekin.

Hori dela eta udalbatzak, aho batez honakoa

ERABAKITZEN DU

Bakarra,

2016 San Blas jaietako aurrekontua onartzea (eranskina).



## **9.- Galdera eta eskaerak.**

9.1. Aritz Ugarte jaunak galdetu ditu Ondramuño baserriari eta bertan egiten ari den anpliazio obrari buruzko hainbat galdera. Honakoak galdetu ditu:

- Zer distantzia dagoen anpliazioa eta eraikuntza gertuena? Alkate jaunak azalpenak ematen ditu.

- Zergatik aplikatu zaion hobaria baimena emateko garaian? Alkate jaunak azaltzen du honakoa gauza teknikoa dela eta Idazkariak aplikatu zuela. Hala ere espedientea begiratzea konbidatu dio nahi izanez gero.

- Bizilagunekin bilera bat egiteko gelditu zen baina gero bertan bera utzi, zergatia galdetzen du. Alkate jaunak azaltzen du bilera bat egin zela, baina hainbat afektatu ez zirela azaldu. Gero plenoan erabaki zen beste bigarren bilera bat egitea, baina erabaki hortik egun batzuetara EHBilduko taldeak ohar ofizial bat atera zuen eta udal gobernuak hori gaizki hartu zuen. Baita ere herri mailan afektatu batzuk kritika oso gogorak botatzen ari dira udalaren jardueraren aurka. Bi horiek errespetu falta bezala hartu ditu udal gobernuak eta hortaz erabaki du bigarren bilera hori bertan behera uztea. Hori guztia idatziz jakinarazi zitzaizen afektatuei.

Eztabaida horren baitan Argoitz Urrestaratzu zinegotziak hitza hartu du eta esan du udalak jarduera berri horren komenientzia justifikatzeko txosten tekniko bat eskatu behar zuela. Alkate jauna ez dago horrekin ados. Honek esan du herriari onura ez dela zertan txosten tekniko batean aitortu behar, eta kasu honetan begi bistakoa dela turismo aldetik eta udal ekonomiarentzako onuragarria izango dela jarduera honen anpliazioa.

Aloña Barandiaran zinegotziak hitza hartu eta plenoak bilera egitearen aldeko erabakia errespetatu behar zela esan du; ez gerora bertan behera utzi.

Montserrak Delgado zinegotzia alkate jaunaren aldeko jarrera azaldu du, esanez berari ere min asko egin ziola EHBildu udal taldeak ateratako ohar publiko hori.

Gaia eztabaidatutzat ematen da eta puntu horretan uzten da.

9.2. Aloña Barandiaran zinegotziak galdera batzuk egin dizkio alkate jaunari, honakoak:



- Nola erabaki da herriko jaietan emango den pregoia nork emango duen?  
Alkate jaunak azalpenak eman ditu horri buruz.

- Zergatik ez da oraindik jakitera eman udaletxeko idazkaritza ordutegia bai  
web orrian zein Plazara aldizkarian? Alkateak eta Idazkariak azaltzen dute lehen bai  
lehen egingo dela.

Eta beste gairik ez dagoenez Batzarra bukatutzat ematen da gaueko 20:30ak  
direnean.





**ERANSKINA**

**SAN BLASAK 2016**

**AURREKONTUA:**

	GASTUAK	SARRERAK
<b>AZPIEGITURAK</b>		
IMAUDIO	7.871,05 €	
KALEKO KOMUNAK-BALAT	847,00 €	
	0,00 €	
MOKETA IGNIFUGOA	464,64 €	
ELEKTRIZITATEA	1.900,00 €	
BLUSAK	174,00 €	
IBERDROLA	320,00 €	
UDALEKO LANGILEAK APARTEKO ORDUK	570,00 €	
BEROTZEKO KAINOIAK TXIMELA	200,00 €	
BEROGAILUAK "TXANPIAK"	308,55 €	
KARPA + OHOLTZA	5.300,00 €	
EDALONTZIAK	350,00 €	
PLATER ETA ABAR	1.600,00 €	
	0,00 €	
<b>PUBLIZIDADEA + KOMUNIKABIDEAK</b>		
SGAE	410,00 €	
PUBLIZIDADEA	2.000,00 €	
IMPRENTA	500,00 €	
<b>EKITALDIAK</b>		
HAUR DANBORRADA	1.180,00 €	
ALARDEA	3.713,20 €	
DANTZALDIA	700,00 €	
	0,00 €	
GURI 51	484,00 €	
BERTSOLARIAK	800,00 €	
PUZGARRIAK	1.573,00 €	
PAILAZOAK	3.850,00 €	1.800,00 €
ERROMERIA: GARI ETA IÑAKI	400,00 €	
Ttek ELEKTROTXARANGA	1.000,00 €	
BURRUNBA ELEKTROTXARANGA	1.175,00 €	
EGAN	1.815,00 €	
<b>KIROL EKINTZAK - EMANALDI</b>		
PELOTA TXAPELKETA	16.000,00 €	15.000,00 €
HAUR PELOTA TXAPELKETA	0,00 €	
KROSA	3.000,00 €	
FUTBITO TXAPELKETA	1.000,00 €	
GOITIBEHERA TXAPELKETA	1.500,00 €	
TIRO AL PLATO TXAPELKETA	100,00 €	
TOKA TXAPELKETA	150,00 €	
	0,00 €	
<b>BAZKARI+AFARI+TXOTX...</b>		



### SAN BLASAK 2016

SAGARDOA TXOTXEN (PAELLA + ERROMERIA EGUNEKOA?)	484,00 €	
MUSIKA TALDEEI AFARIA	280,00 €	
PAELLA BAZKARIA	1.800,00 €	<del>2.000,00 €</del>
ZIEKOKO EGUNA: BAZKARIA	0,00 €	2.250,00 €
AFARIA: OSTIRALEKOA	3.410,00 €	3.212,00 €
AFARIA: LARUNBATEKOA	4.500,00 €	2.150,00 €
OHIZKO HAMAIKETAKOA	1.400,00 €	
BERTSO BAZKARIA	60,00 €	
HAUR TXOKOLATADA+PLAYBACKA	200,00 €	
EXTRA MODURA	500,00 €	
<b>DENETARA:</b>	<b>73.889,44 €</b>	<b>26.412,00 €</b>